

LANA. Espainiako Gobernu, patronal eta sindikatuak ateak ixten dizkiote euskal esparruari

Euskal lan harremanen berezitasunak «ez dauka lekurik Estatuko markoan»

Jose Miguel Unanue ELAko idazkari ohiak idatzitako 'Lan Harremanak Euskal Herrian' liburuan aipatutako arazo nagusietakoa da

Joseba Aiarza | BILBO

Euskal Herriko lan harremanen berezitasunak arazo handiak ditu gaur egun Espainiako Estatuko marko juridikoan sartzeko. Horixe da Jose Miguel Unanue idatzitako *Lan Harremanak Euskal Herrian* liburua onorio nagusietako bat.

Unanue ELA sindikatuko negoziazio kolektiboaren ardura-dun ohia da, eta bere ikerketa

lanak Euskal Herriko lan harremanen historia, berezitasunak eta arazo nagusiak aztertu ditu, langile mugimenduaren hastapenetik abiatu eta orain arte.

Haren ustez, Espainiako Gobernuak, patronalak eta sindikatuen jardueraren helburuak «lan harremanetarako marko autonomoak sortzeko aukera guztiak ixtea da» gaur egun. Horretarako, marko autonomoak ahalbidetzen dituzten lege

aldaketak egiteko prest daude, hala nola Langileen Estatutuaren 84. artikulua aldatzeko.

Horren aurrean, ikerketak agerian utzi du Euskal Herriko lan harremanen inguruan «esparru autonomo, berezia eta instituzionalizatua» eratu dela. Esparru horren egonkortasuna arriskuan dago, ordea, jokaera zentralistak eragindako segurtasun juridikorik ezagatik.

Eztabaidaren azpian sindikatuen arteko liskarra dago, eta etorkizunarekiko zalantzak sortzen dira: Quebecoko eredua dago, non sindikatu guztiak berezko esparruaren alde dauden, edota Belgikakoa, marko bakar eta homogeneoa nagusi dena.

JOSE MIGUEL UNANUE

ELAko buruzagi ohia

«Lan harremanetarako marko autonomoak sortzeko ate guztiak itxi egin nahi dituzte»

Pentsa litekeenaren kontra, euskal sindikalismoa inoiz baino indartsuago dago gaur egun. Horri esker, lan harremanen eraginez, euskal beharginek bizi baldintza hobek dituzte espainiarrekin alderatuta, hala nola soldata edo pentsio hobek, liburuak dioenez.

LABURAEAN

Ruweleko zuzendaritzak enpresa likidazio judizialean ezartzea eskatuko du

Baionako Ruwel lantegiko zuzendaritzak ez du lehen-gairik hartu nahi aktibitatearen berrabiatzeko. Merkataritza auzitegiari likidazio judizial eskaera egingen dio datorren astelehenean. CFDT sindikatuak Ruwel-eko zuzendaritzari likidazio horren ondorio ekonomikoak bere gain har ditzan eta birmoldaketarako baliabide guztiak atzeman ditzan eskatu diote.

Lan baldintza duinak aldarrikatu dituzte Virgen de la Vegako langileek

Dagoeneko 26 egun egin dituzte greban Galdakaoko Virgen de la Vega hirugarren adineko egoitzako langileek. Lan baldintza duinak eta kaleratzerik ez egiteko aldarrikatzen dute: «Egoitzetan dagoen hitzarmena aldatu gura dugu, dauzkagun baldintza egoerak hobek izan daitezkeen», adierazi zuten Bizkaiko Diputazioaren aurrean LAB eta ELA sindikatuak antolatutako manifestazioan bildutako langileek.

Frantziako petrolio enpresek ohartarazi dute erregaiei prezioak gorantz jarraituko duela

Frantziako petrolio konpainien elkarteak (UFIP) ohartarazi dute erregaiei prezioak gorantz jarraituko duela. Iragan martxoan Frantziar eta Iparralden batez beste hiru edo lau zentimo inguru garestitu ziren erregai mota desberdinak. Elkarteak argudiatu duenez erregaiei gainerako zerga handiak (%80) mantentzen badira eta petrolio upelak gorantz jarraitzen badu, erregaiek bide bera izango dute.

ELAk Bizkaiko hormigoi eta harrobigitzan deitu greba mugagabea deitoratu du LABek

ELAk Bizkaiko hormigoi eta harrobigitzako negoziazio kolektiboan greba mugagabea deitu du eta LABek, atzo, deialdi hori deitoratu zuen. Negoziazio mahaian gehien-go osoa izanik, «nagusikeriaz» jokatu duela leporatu zion ELAri, besteen iritzia alde batera utzita. LABen iritziz enpresari azken eskaintza urrun dago, baina ez da itsuan joan behar.



LUIS TEJIDO / EFE

Jose Miguel Unanue eta German Kortabarria 'Lan Harremanak Euskal Herrian' liburua aurkezpen ekitaldian.

J.A. | BILBO

Unanuek egindako ikerketa lana «Euskal Herriko lan harremanen inguruan aspalditik zegoen hutsune handia betetzera» datorela azpimarratu zuten atzoko aurkezpen ekitaldian Martin Auzmendik eta German Kortabarriak, bata Eusko Jaurlaritzako lan sailburu ohia eta bestea ELAko Komunikazio idazkari eta Manu Arangiz Fundazioko presidentea.

Xehetasun historikoekin hasita, ikerketak 1890. urtean kokatzen du euskal langile mugimenduaren hasiera, Bizkaiko meatzarien grebarekin. Ordu-tik hona egoera sozio-ekono-

«Estatutuaren krisiaren adierazgarri argiena»

LAN GATAZKA. Euskal langile mugimenduaren sorrerako gatazkak, gaur egungoen parekoak

mikoa asko aldatu arren, «egungo errealitatearen azalaren azpian, lan harremanetako etengabeko osagarria gatazka dela antzematen da», dio egileak. Hala, greba hura eguneko hamar lanorduen alde egin zen, eta oraingo mugimendu sindikalaren aldarrikapen nagusia asteko 35 lanorduen aldekoa dela azpimarratu du.

Kontakizun historikoa Trantsizio garaiarekin amaitzen du liburua lehenengo kapituluak, eta gero euskal sindikatuen eta enpresari elkarrekin bilakaera aztertzen du bigarrenak; hirugarrenak legediaren sorrera jasotzen du, batik bat Autonomia Estatutuak. Horretaz, EAEk eta Nafarroak esku-menik gutxienak gizarte eta lan

alorretan dituztela ohartarazi du lanak. Horri auzitegien jokatibideak eta transferentzien blokeoa gehituta, «gizarte eta lan alor hau Estatutuaren krisiaren adierazgarri nagusieta-ko bat» dela ondorioztatu du Unanuek. Ildo beretik, hurrengo atalak lan harremanen zentralizazio joerari eskaintzen dizkio, eta joera hori Trantsizio-tik hona etengabekoa izan dela gogoratzen du.

Euskal Herriko lan harremanen instituzionalizazioa aztertu ostean (LHK, PRECO, Hobetuz, EPSVak...), azken kapituluak euskal administrazio publikoetako lan harremanak aipatzen ditu, eta azkenik ondorioak datoz.